

SARRERA:

Proiektu honek euskal musika entzuteko aplikazio baten sorrera proposatzen du, euskal artistei bultzada ematea eta euskal kulturaren transmisioa bermatzea helburu nagusitzat hartuta. Gutxi ez balitz, pentsamendu eta ideologia antifaxista zabalduko genuke, musika politizatu gabe edo behintzat hori egiteari saihestuz. Gaur egun, bereziki gazteen artean, bertako musikaren ezagutza eskasa da, eta ohikoa da kanpoko musika-kontsumoa lehenestea. Egoera horren aurrean, ekimen honek hemengo musikari eta abeslariak bizirik irautea, ikusgarritasuna irabaztea eta euren sorkuntza eta bizipenak mundura zabaltzea du xede.

Aplikazioak euskarazko musika entzun eta partekatzeko espazio propio, eskuragarri eta etikoa eskainiko du, merkatu komertzial handietatik kanpo kokatzen diren euskal artistak bildutaz. Musika erreprodukzioaz gain, plataformak artisten inguruko datu biografikoak, testuinguru kulturalari lotutako informazioa eskainiko ditu, euskal musika garaikidearen transmisiorako eta kontserbaziorako tresna gisa.

Horrez gain, talde eta artista horiei egindako elkarrizketak podcast formatuan argitaratuko dira, publikoaren eta sortzaileen arteko harreman zuzenagoa sustatuz. Proiektua konpromiso sozialeko balioetan oinarritzen da, hala nola antifaxismoan, gutxiengotutako kulturen defentsan eta nazioarteko elkartasunean, eta Palestinako herriari babesa adierazten dio, pairatzen ari den giza eskubideen urraketa larrien aurrean. Spotify bezalako plataformen aurrean, ekimen honek artistekiko harreman garden eta errespetuzkoa aldarrikatzen du, kultura kontzientzia, erresistentzia eta komunitatea eraikitzeke tresna gisa ulertuta. Hasierako ikuspegia euskal gizartean zentratzen da, etorkizuneko hedapen-aukerak baztertu gabe.